



IRIZPEN ZK.: D16-029

UDAL BATEK DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK JUSTIFIKATZEKO AGIRIETAKO DATUAK AURKEZTEA EA DATU LAGATZEA DEN EBAZTEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) irizpen eskabide bat jaso genuen goiburuan adierazitako gaiari buruz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak jasotako idazkiak honakoa zioen:

“Hona aurrekariak: [...] Udalak diru-laguntza bat eman dio irabazi asmorik gabeko udalerriko elkarte bati, bere jarduerak burutzeko. Elkartearen zeregin nagusia da ikastaro artistiko kulturalak ematea. Hori dela eta, elkarteak izan dituen sarrera eta gastu guztiak justifikatzeko eskatu diegu, eta, beraz, ikasleen zerrenda eta ikasleek ordaintzen dituzten kuoten zenbatekoak ere eskatu dizkiegu, jakiteko ea jarduera gainfinantzaketarik dagoen.

Elkartekoek erantzun digute ezin digutela ikasleen zerrendarik bidali adingabeak direlako, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoarena babesaren dutelako; eta, beraz, ezin digutela eskatutako informazioa bidali.

Udalak bakar-bakarrik jakin nahi du elkartearen jardueren benetako kostua eta sarrerak”.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta honen xedea da honako bi eskubide hauen arteko talka ebaztea: batetik, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea, eta, bestetik, administrazioak gauzatu beharreko kontrola, sustapen jardueretarako ematen dituen diru-laguntzen gainean.

Kontrola gauzatzeko eginbehar den datu tratamenduak honetan datza: udalari lagatzea ikasleen zerrenda, ikasleen identifikazio eta guzti, eta ikasleek ordaintzen dituzten



zenbatekoak; eta udalaren diru-laguntza jaso duen elkarte batek laga behar dizkio datu horiek udalari.

Datu babesaren esparrutik begiratuta, kontsultak aipatzen duen datu-tratamendua datu-lagatze edo datu-komunikazio bat da. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikulua arabera, datu lagatzea edo komunikazioa zera da: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”*.

Datu lagatzei buruzko araubidea DBLOren 11. artikuluan dago jasota, eta 11.1 artikulua dio datuak laga ahal izateko arau orokorra honakoa dela: ukituak adostasuna adierazi behar duela; eta 11.2 artikuluan daude zehaztuta arau orokorrak dituen salbuespenak. Gure kasuan a) letrak dioena aipatu behar dugu: *“Lege batek baimentzen badu lagapena”*.

Beraz, aztertu behar dugu ea administrazioak duen kontrol ahala nahikoa den udalak egin nahi duen datu tratamendua egin ahal izateko.

II

Toki Ogasunak Arautzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak arautzen du toki administrazioaren kontrol ahala. Hona 213. artikulua lehenengo paragrafoak dioena barne kontrolari buruz:

“213. artikulua. Barne kontrola.

Hurrengo artikuluetan zehazten diren luzapenarekin eta ondorioetarako, toki-entitateen, haien menpeko merkataritza-sozietateen eta erakunde autonomoen barne-kontrolerako eginkizunak gauzatuko dira, kontu-ikuskaritza funtzioaren eta finantza-kontrolerako funtzioaren modalitateetan, baita erregelamendu bidez zehazten diren entitateen auditoria eta eraginkortasunaren kontrolerako funtzioa ere”.

Bestalde, hurrengo artikulua arautzen du zein diren kontu-ikuskaritza esparrua eta modalitateak. Ikusi 1. zenbakiak dioena:

“1. Bere helburua toki-erakundearen eta bere erakunde autonomiadunen egintza guztiak fiskalizatzea da izaera ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak edo gastuak aitortzea eta likidatzea dakartenean, baita horien ondoriozko sarrerak eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsioa eta, oro har, aplikazioa ere, kudeaketa kasuan kasu aplikagarriak diren xedapenetara egokitu dadin”.

Eta 2. zenbakiko d) letrak berariaz dio kontu-ikuskaritza eginkizunak *“Inbertsioak eta diru-laguntzen aplikazioa materialki fiskalizatu eta egiaztatzen dituela”* ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak EAEko tokiko ogasunen jardura printzipioei buruzko artikulua bat du (110. artikulua), eta 2. zenbakiak zera dio: *“Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ogasunek ondorengo printzipioak bete beharko dituzte, beren baliabideak kudeatzeko: legezketasuna, gardentasuna, objektibotasuna, ekonomia, eraginkortasuna, efizientzia, kontrola, kutxaren batasuna eta arrazionaltasuna”*.

Ikusten dugunez, administrazioaren jardura kontu-ikuskaritzaren kontrolpean dago, horrek bermatzen duelako bete egingo direla printzipio guzti horiek, zerbitzu publikoa kudeatzeko jarduerak direnean nahiz sustatzeko jarduerak direnean. Administrazioaren ohiko sustapen jardura bat da diru-laguntzak ematea. Diru-laguntzei buruzko azaroaren



17ko 38/2003 Legearen 2. artikuluan dago jasota diru-laguntza zer den azaltzen duen definizioa:

“1. Lege horren ondorioetarako, diru-laguntzatzat joko da lege honetako 3. artikuluan adierazita dauden subjektuek pertsona publiko edo pribatuen alde emandako diru oro, honako baldintzok betetzen badituzte:

- a) Onuradunen kontraprestazio zuzenik gabe ematea.*
- b) Dirua emateak baldintza izan dezala helburu jakin bat betetzea, proiektu bat gauzatzea, jarduera bat egitea, jokabide berezi bat hartzea, jada burutua dagoena edo burutzeko, edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunak bete egin behar ditu betebeharrak material eta formalak.*
- c) Finantzatutako proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburua erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzea edo xede publiko bat sustatzea izan”.*

Eta onuradunaren betebeharrei dagokienez, hona 14.1 c) artikulua dakarrena:

- “c) Organo emaileak, erakunde laguntzaileak (hala badagokio) egin beharreko egiaztatze jarduerak onartzea, bai eta eskumena duten beste erakunde batzuk, Estatukoak nahiz Europako Erkidegokoak, eginbeharreko egiaztatze eta kontrol jarduerak ere, eta aurkeztea erakunde horiek, euren eginbeharrak burutzeko, eskatzen dizkieten informazio guztia”.*

Diru-laguntzak ematen dituen erakundeak burutu behar duen kontrol finantzarioa gauzatzeko ahala dago diru-laguntzen onuradunen betebeharren atzean, Eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 44. artikulua dio kontrolak honakoak egitea dakarrela:

- a) Onuradunen eta erakunde laguntzaileen kontabilitate-erregistroak, kontuak edo finantza-egoerak eta horiek guztien euskarri dokumentalak aztertzea.
- b) Emandako diru-laguntzetan eragina izan dezaketen edo diru-laguntzekin zer ikusia izan dezaketen banakako operazio zehatzak aztertzea.
- c) Emandako diru-laguntzetan eragina izan dezaketen edo diru-laguntzekin zer ikusia izan dezaketen alderdi partzial eta zehatzak egiaztatzea.
- d) Finantzatutako inbertsioak materialki egiaztatzea.
- e) Diru-laguntzaren arautegi erregulatzaileak eta, hala badagokio, deialdiko baldintzek, kasu bakoitzean ezartzen dutenaren arabera, egin beharreko kontrol jarduerak zehatzak.
- f) Diruz lagundutako jardueren ezaugarri bereziak direla eta, beharrezkoak diren egiaztapen guztiak egitea.

Artikulu horrek berak dioenez, onuradunekin lotura duten pertsona fisikoen edo juridikoen gainean ere egin daiteke kontrol eginkizuna, bai eta lortu nahi diren helburuak lortzera, jarduera burutzera, proiektuak gauzatzera edo portaerak bereganatzera bideratutako interesen bat izan dezakeen beste edozein pertsonaren gainean ere.

Bestalde, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatu egin zuen Diru-laguntzei buruzko Legea. Horretarako, kontrol eginkizunak burutzen dituzten langileen ahalei buruzko 47.



artikuluari beste zenbaki bat gehitu dio (5. zenbakia), eta informazio pertsonala lagatzeko aukera onartzen du, kontrol eginkizuna burutu ahal izateko:

“5. Ez da ukitutako pertsonaren baimena beharko, aurreko artikuluan, artikulua honen aurreko paragrafoetan edo lege-mailako gainerako arauetan jasotakoaren arabera Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailetza Nagusiari izaera pertsonaleko datuak lagatzeko, finantza-kontroleko funtzioak bete ditzan. Esparru horretan ez da aplikatuko datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoren 21. artikulua 1. paragrafoan xedatutakoa”.

Aurreko gogoetak ikusita, ondorioztatzen da badagoela behar den informazioa lagatzeko lege gaikuntza, eta, beraz, datu tratamendua ondo ezkontzen dela datu pertsonalak babesteko araudiarekin, baina kontuan hartuta, datuak kontrol eginkizunerako baino ezingo direla erabili, DBLOren 4. artikulua xedatutako kalitatearen printzipioak agintzen duenarekin bat.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 2a